# BESTELAKO XEDAPENAK

## JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

## 4924

*AGINDUA, 2012ko abuztuaren 20koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Fundación Arma Plaza fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.*

Aztertuta geratu da Fundación Arma Plaza fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko aurkeztutako espedientea. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2012ko uztailaren 20an, Justizia eta Herri Administrazio Sailean eskabide bat sartu zen, Fundación Arma Plaza fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko (Hondarribiko Udalak sortua da fundazioa). Eskabideari bi kopia eskuetsi erantsi zitzaizkion, Hondarribiko notario Rafael Lacort Usieto jaunaren aurrean 2012ko otsailaren 7an egiletsitako eskritura publikoari zegozkionak (protokolo-zenbakia: 74).

Bigarrena.– Fundazioaren helburuak zilegiak eta interes orokorrekoak zirela egiaztatzeko bildu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoak fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen, 2012ko uztailaren 30ean.

Hirugarrena.– Gerora, 2012ko abuztuaren 9an, eraketa-eskritura azaltzen eta osatzen duten agiri hauek sartu ziren erregistroan:

– Aurrekontuetan fundazioarentzat izendatutako diru-zenbatekoari buruzko ziurtagiria, Hondarribiko Udaleko idazkariak 2012ko abuztuaren 8an sinatua.

– Fundazioaren gerentearen kontratazioari buruzko azalpena, fundazioaren lehendakariak 2012ko abuztuaren 8an sinatua.

– Jardunerako lehenengo programari buruzko azalpena, fundazioaren idazkariak 2012ko abuztuaren 2an sinatua.

– Eraketa-eskriturari erantsitako bideragarritasun-txostenari buruzko azalpena, Juan Manuel Gallo Garmendia auditore jaunak 2012ko abuztuaren 1ean sinatua.

– 2012ko martxoaren 28ko bilkuran hartutako erabakiei buruzko ziurtagiria, Hondabirriko Udaleko idazkariak, Luisa Izquierdo Marculeta andreak, 2012ko uztailaren 27an sinatua.

– Fundazioaren patronatuak 2012ko maiatzaren 11n egindako bilkuraren akta.

– Patronatuko kide gisa honako hauek onartzen direla ziurtatzeko agiriak: Ibai Labayen Zapirain jauna, Jesús Ignacio Álvarez Yeregui jauna eta «Asociación de Amigos de la Historia de Hondarribia» elkartea (elkarteko lehendakari José Antonio Salaverria Osinalde jaunak ordezkatua).

Laugarrena.– Honako hauek dira fundazioaren helburuak, estatutuen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera:

«Fundazioak helburu hauek ditu:

– Hondarribian dauden monumentuak zaintzea eta zaharberritzea, eta monumentuen ingurunea hobetzea eta egokitzea. Horretarako, haiek balioestea bultzatuko du, eta, hala, zer diren kontua izanik egokienak irizten diren erabilerak izendatuko zaizkie.

– Hondarribiaren natura-, kultura- eta paisaia-ondarea zaintzea eta zabaltzea.

– Ahalegina egitea bere helburuak lortzera bideratutako jardueretan partikularrek edo entitate publiko nahiz pribatuek parte harte dezaten.

– Bere helburuen zabalkundea egitea herritarren artean, helburuok hobeto ezagutarazteko eta, funtsezko ekarpenak eginda, hobeto betetzeko.

Fundazioak, bere helburuak lortzeko, jarduera hauek egin ahal izango ditu:

– Hondarribiaren «Monumentu Multzo» izendapenari lotutako programak, proiektuak eta ekimenak kudeatu.

– Antzeko helburuak dituzten beste entitate batzuekin sarea osatuz, esperientziak trukatzea eta elkarrekin jarduteko ildoak bilatzea sustatu.

– Fundazioaren helburuak garatzen lagunduko duten ikerketa- eta prestakuntza-programak sustatu eta landu.

– Hondarribiak historia, natura, kultura eta paisaiaren aldetik dituen balioak sustatuz eta balioetsiz, bertako ekonomia garatzen eta enplegua sortzen lagundu.

– Kultura Turismoko proiektuak kudeatu: ibilbideak sortu.

– Prestakuntzako ikastaroak eta jarduerak landu eta eman: hitzaldiak, sinposioak, mintegiak, biltzarrak, etab.

Eta, oro har, bere helburuak erdiesteko behar diren jardunak gauzatzea.»

Bosgarrena.– Estatutuetako 5. eta 6. artikuluek diotenez, fundazioaren egoitza Hondarribian dago (Panpinot 16, Ramery etxea), eta fundazioak Hondarribiko udalerrian garatzen ditu, gehienbat, bere jarduerak.

Seigarrena.– Hasierako dotazioa 35.000 eurokoa da. Kopuru hori ordaindu dela agiri bidez jasota geratu da erregistro-inskripzioko espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak 37.1.c) artikuluan.

Zazpigarrena.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, hala baitago aurreikusita fundazioaren estatutuetan.

Zortzigarrena.– Fundazioa eratzeko eskrituran eta espedientean jasotako izendapen-ziurtagiri osagarrietan ezartzen denez, hauek izango dira, hasieran, Patronatuko kideak:

| Kargua | Patronatuko Kidea |
|---|---|
| Lehendakaria: | Aitor Kerejeta Cid jauna, Hondarribiko Udaleko alkatea. |
| Lehendakariordea | Txomin Sagarzazu Ancisar jauna. |
| Idazkaria: | Asociación de Amigos de la Historia de Hondarribia elkartea, elkarteko lehendakari José Antonio Salaverría Osinalde jaunak ordezkatua. |
| Bokala: | Ibai Labaien Zapirain jauna. |
| Bokala: | Jesús Ignacio Álvarez Yeregui jauna. |
| Bokala: | Ion Elizalde Caballero jauna. |
| Bokala: | José Miguel Ochoteco Aguirre jauna. |
| Bokala: | Juan M.ª Altuna Muñoa jauna. |
| Bokala: | Amaya Gezala Ortiz andrea. |
| Bokala: | Jon Mikel Garmendia Múgica jauna. |

Denek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko bat erabiliz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala dago aurreikusita honako arau hauetan: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikulua; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4. artikulua.

Bigarrena.– Hartarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espedientea. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datuak eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa. Aplikatzekoak diren legeetan eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat etorrita eratu da fundazioa.

Ikusirik aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplikatu beharreko gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako hau Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea, egun honetan eta erregistro-zenbaki honekin: F-342, Hondarribiko (Gipuzkoa) Fundación Arma Plaza fundazioaren eraketa, eta bai Patronatuaren hasierako osaera ere. Zortzigarren aurrekarian agertzen da zein kidek osatzen duten Patronatua. Kide horiek espresuki onartu dituzte beren karguak, betiere, Hondarribiko notario Rafael Lacort Usieto jaunaren aurrean 2012ko otsailaren 7an egiletsitako eskritura publikoaren zehaztapenekin bat etorriz (protokolo-zenbakia: 74). Eskritura publikoari, haren edukia azaltzen eta osatzen duten agiriak gehitu zaizkio; hirugarren aurrekarian zehaztu dira agiri horiek.

Bigarrena.– Fundazio hori, zer helburu helburu dituen kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta fundazioari bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 20a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.